

Euskararen arnasguneak

Definizioaren eta erronken berrikuspena



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



SARRERA

Dokumentuaren zer nolakoak



Azken bost urteetan zehar ARNASGUNEen ginean Udaleri Euskaldunen Mankomunitatearen (JEMAre), Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren (HPSren) artean sendotu den lankidetzaren emaitza da dokumentu hau, eta helburu du etorkizunean arnasguneek leuzkaketen erronkak eta ekintzak zehazteko abiapuntuko tresna izatea.

Edozein hizkuntza gutxituren indarberritze prozesuan hiztun dentsitate handiko guneek, euskararen kasuan *arnasgune* deitu direnek, izaera berezitua dute, eta ekarpen esanguratsua egiten diote indarberritzen ari den hizkuntzari. Euskararen arnasguneen bilakaera soziolinguistikoaren aldaketez jabeturik eta *arnasgune* kontzeptuak berak hartu dituen adiera sozial ezberdinen gaineko irakurketa eginik, erronka gisa hartu dugu hiru erakundeok, alde batetik, ARNASGUNE kontzeptuaren berrikuspena egitea, eta bestetik, euskararen indarberritzean eremu honi begira ditugun erronkak zehaztea.

Euskararen arnasguneak askotarikoak dira. Ez dira gune soziogeografiko homogeneoak. Euskararen ekosistematik osasuntsuenak izanagatik ere, errealitate soziolinguistiko anitzeko arnasguneak ditugu Euskal Herrian. Halere, badituzte ezaugarri komunak, eta beraz, dokumentu honetan egin den ariketa orokortze lan bat izan da. Printzipioz, Hego Euskal Herriko begiradatik egindakoa.

Bi elementu jorratu dira gogoeta prozesuan zehar, eta horrela aurkeztu dira dokumentuan:

- **Arnasguneak: definizio baterako zertzeladak.** Terminoaren definizio orokorra egiten da.
- **Arnasguneak gaur: ezaugarriak eta erronkak.** Euskararen arnasguneen ezaugarriak zein diren esaten da eta alor bakoitzean jorrazteko geneuzkakeen erronka proposamena egiten da.

Sorrerako dokumentua ontzeko, ondoren zehazten diren pertsonak hartu dute parte lantaldean:

Euskarabidea: Paula Kasares eta Joana Saralegi.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: Josune Zabala eta Ander Gartzia (idazkaritza)

UEMA: Miren Segurola eta Iñaki Lurrebaso.

Bestalde, dokumentu honetako edukiak arloko zenbait aditurekin kontrastatu dira eta haien ekarpenak aintzat hartu dira. Lantalde honetan hartu dute parte ondorengo adituek:

Manex Agirre (euskara teknikaria Gorbeialdean), Xan Aire (euskara teknikaria Seaskan eta Ikastolen Elkartearen), Pello Akizu (Berritzegunean Hizkuntza Arloko aholkularia izandakoa), Patri Arburua (euskara teknikaria Bortzirietako Euskara Mankomunitatean), Garikoitz Goikoetxea (euskara teknikaria Tolosako Udalean), Maialen Iñarra (technikaria Soziolinguistika Klusterrean), Patxi Juaristi (soziologoa EHU), Eneka Maiz (euskara teknikaria eta Etxarri Aranazko alkatea izana) eta Mikel Zalbide (soziolinguista eta euskaltzaina).

Eusko Jaurlaritzaren, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta UEMAREN elkarlanaren emaitza da lan hau, ondorengo erreferentzia honen bitartez jasoko dena:

Euskarabidea, Hizkuntza Politika Sailburuordetza eta UEMA (2024): *Euskararen arnasmuneak: definizioaren eta erronken berrikuspena.* (www.arnasagara.eus/arnasmuneak/)

2024ko martxoa



ARNASGUNEAK: definizio baterako zertzeladak



Eguneroko mintzajardun arruntetan bertakoen artean euskara nagusitzen den gune soziogeografikoak (auzoa, herria, herrixka, eskualdea, harana...) dira arnasmuneak, zeinetan herritarrek beren egunerokoan, gunean bertan dituzten komunikazio harremanak (oinarrizko beharrei lotuak, familiakoak, lagun artekoak, sozialak, administratiboak, eskola girokoak, ekonomikoak...) nagusiki euskaraz garatzen dituzten. Bertako hiztunen hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, gehienek euskara dute errazen/ongien erabiltzen dakiten hizkuntza.

Arnasmuneetan euskara belaunez belaun transmititzen ohi da familia gehienetan (gurasoen eta haurren artean); eta euskaraz mintzatzeko arau sozialak du indarra bertakoen arteko gizarte harreman ohikoenetan (helduen artean, haurren artean...). Ondorioz, euskararen eta euskal kulturaren nolabaiteko *transmisio soziala* edo *komunitarioa* gertatzen da, hau da: hizkuntzaren transmisioa gizarte bizitzak bermatzen du belaun arteko eta belaun barneko elkarrekintzetan. Horren guztiaren ondorioz, gizarte integrazioa euskara ikasi eta erabiltzearekin harreman estuan dago. Eta horrekin batera, erabilerazko *hizkuntza-bilakaera* prozesuetan indartsuagoa da jatorriz euskara ez zekitenen euskalduntzea, jatorriz euskaldunak diren hiztunen erdalduntzea baino. Arnasmuneetan, testuinguruak modu naturalean laguntzen du hiztunen gaitasuna sendotzen eta erabilera areagotzen. Hala ere, badaude jatorriz arnasmuneetakoak direnak, baina euskaraz ez dakiten hiztunak.

Baldintza horiek betetzen dituzten eremu soziogeografikoak, eta horiek soilik, jotzen ditugu arnasmunetzat.

Hala bada, euskara nagusi ez den lurraldeetan euskararen erabilera ahalbidetzen edo/eta bultzatzen duten eremu soziofuntzionalak (Laba espazioa Iruñean edo D ereduko ikastetxe bat Bilbon, adibidez) edo euskarari berariaz sortzen zaizkion guneak/uneak (esaterako, Tuteran Nafarroa Oinez antolatuko balitz, egun bateko ekintza puntuala) ez dira, definizio horren arabera, euskararen arnasmuneak eta ez da komeni, horiek adierazteko, kontzeptu bera baliatzea.

Arnasgunetzat jotzen direnen artean, halere, aldeak daude, neurriz eta izaeraz gain (batzuk nekazalgoko herri koskorrak dira eta beste batzuk hirigune nahiko urbanizatuak), euskararen bizitasun soziolinguistikoko zenbait adierazlez ere (euskararen etxeko erabilera, familia bidezko transmisioa...).



ARNASGUNEAK GAUR: ezaugarriak eta erronkak



Bertako herritarren gehiengoa *euskal elebiduna* da, alegia, euskaraz erdaraz baino errazago aritzen da, eta euskaraz gain, gaztelania edo/eta frantsesa ere badaki, hauek baitira gizartean hegemonikoak diren hizkuntzak; eta gazteak, batik bat, *euskaldun eleaniztunak* dira, euskaraz eta gaztelaniaz edo frantsesez gain beste atzerriko hizkuntza batean ere (ingelesez, oro har) moldatzen baitira.

Arnasguneetan euskarazko hiztunak beren hizkeran aritzen dira, ahozko komunikazioetan behinik behin, eta euskara estandarrez edo batuaz zeregin formal eta idatzietan gutxi-asko baliaturik. Euskararen aldaerak indartsu mantentzen dira arnasguneetan, erderen interferentzia txikiagoarekin, eta bertako herritarren euskara bizia da. Alokutiboaren (hika eta hitanoa) erabilera ohikoa da zenbait arnasgunetan, eta batez ere eremu horietan mantentzen da osasuntsuen.

Bestalde, arnasguneetako hizkuntza paisaian euskara nagusitzen da: kaleen izenetan, afixetan, bestelako ageriko idatzietan... Beraz, euskara aditu ez ezik *ikusit* ere egiten da.

Hezkuntzaren alorrean ere euskara nagusitu ohi da, bai gela barruan zein kanpoan, herriko ikastetxeetan. Kulturari dagokionez, ekitaldi gehienak euskaraz antolatzen dira: kirol, kultura eta aisialdi jarduerak, izan haurrentzat, izan helduentzat. Modu berean, arnasguneak badira ere euskal kulturaren iturburu emankorrak, bertako sortzaileek batez ere euskaratik eta euskaraz pentsatzen eta sortzen dutelako.

Ingurune digital zabalean, kultur kontsumoan eta jarduera ekonomikoaren esparruan egiten diren harreman sozial edo ekonomikoak euskaraz nahiz bestelako hizkuntzetan egiten dira, solaskide edo harreman-sarearen arabera: bertakoen arteko harreman-sareetan euskara nagusitzen da, eta aldiz, harreman sare sozial edo ekonomiko hedatuagoetan erdaren erabilera nagusitzen da.

Historian euskarari eutsi egin zaio arnasguneetan, eta nahi hori bertakoen artean aski errotuta dago. Euskararekiko atxikimendua mintzairaren aldeko jarrera kolektiboa da eta talde-identitate baten seinalea.

1. Herriak eta hiztunak

1.1. Herri biziak eta jasangarriak

Arnasguneetako bilakaera soziolinguistikoa, mundu mailako aldaketa teknologiko eta kulturek eraginda eta joera demografiko, ekonomiko eta urbanistiko menpe gertatu da azken hamarkadotan. Arnasguneek bizirik jarraituko badute, ezinbestekoa izango da lehenik gune soziogeografiko horien biziraupena bermatzea, horretarako oinarri ekonomiko eta urbanistiko egokia ziurtatuko duen garapen eredia indartuz. Horrekin batera, gune soziogeografiko horiek komunitate bizi gisa jarraitzea ere funtsezko alderdia da etorkizunari begira.

Azken urteotan arnasguneetako biztanleen profila eta bizimoldea aldatu egin dira: mugikortasun handiagoa dago egunerokotasunean (eskualde-burura, hirira, ondoko herrietara) eta dituzten harreman-sareak zabalagoak dira. Arnasgunetik kanpora joateko joera handitu da: lanera, lagunengana, erosketak egitera, hainbat zerbitzu jasotzera... Mugikortasun honek eragina du arnasguneetako hiztunek izaten ohi dituzten komunikazioetan, euskaraz ez dakiten hiztunekin dituzten harremanak ugariagoak baitira.

Horrez gain, internetaren eta sare-sozialen erabileraren ondorioz, arnasguneetatik bertatik mugitu gabe kanpoko jendearekin harremana izaten dute herritarrek eta komunikazio hauek, oro har, hizkuntza hegemonikoetan egiten dira.

1.1.1. Erronka

Gune soziogeografiko hauen “komunitate bizi” izaera sendotu dezaketen politika eta jarduerak indartzea.

1.1.2. Erronka

Arnasguneen bilakaerari eta euren errealitate soziolinguistikoari zuzenean eragiten dioten faktore demografiko, soziokultural, ekonomiko eta urbanistiko konplexutasunaz jabetzea, eta eremu hauen zaintzaren eta indartzearen aldeko politikak gauzatzeko alderdi horiek guztiak aintzat hartzea.

1.1.3. Erronka

Gune soziogeografikoaren etorkizuna baldintzatuko duten proiektu eta egitasmo oro aztertzea eta egokitzea, besteak beste, *Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa* aintzat hartuta.

1.1.4. Erronka

Eskualde-buruen garrantzia aintzat harturik, udalerrri hauetan arreta berezia jartzea euskarak duen nagusitasuna bermatzeko.



1.2. Ahalduntzea eta sentsibilizazioa

Arnasguneek mendez mende eutsi diote euskararen erabilerari, eta aurrerantzean ere hiztunek hartzen duten jarrera erabakigarria izango da hizkuntza hegemonikoen tartean arnasguneetan euskarari eutsiko bazaio. Euskal hiztun ahaldundutzat jotzen ditugu egoera soziolinguistikoaren jabe diren, euskararen nagusitasuna zaintzen duten eta horretarako hizkuntza portaera arduratsuak dituzten hiztunak. Arnasguneetako euskal hiztuna, ordea, ez da maiz ahaldundua: euskalduna bai, eta euskararen aldekoa ere bai gehienetan, baina ez ohartuki. Euskaldun ahaldunduak dauden lekuetan euskararen aldeko arau soziala aldatzea askoz zailagoa izango da.

Arnasguneetako erdaldunak, aldiz, euskararen inguruan sentsibilizatzea oso garrantzitsua da, euskarara hurbiltzeko eta euskararekiko errespetuzko jarrerak garatzeko.

1.2.1. Erronka

Arnasguneetako euskal hiztunak ahalduntzea.

1.2.2. Erronka

Arnasguneetako erdaldunak sentsibilizatzea.



2. Gizarte bizitzaren zenbait arlo

2.1. Hezkuntza

Arnasguneetako haur eta gazteak euskaraz eskolatzen dira eta eleaniztunak dira: euskara, gaztelania edo frantsesa, eta beste hizkuntza bat (gehienetan ingelesa) ikasten dituzte. Transmisio komunitarioaren bidez erregistro ez formala transmititzen da eta hezkuntzaren bidez erregistro formala erabiltzen ikasten dute arnasguneetako haur eta gazteek, ahoz nahiz idatziz.

Euskara hizkuntza nagusi duen hezkuntza ereduari eta transmisio komunitarioari esker etxeko hizkuntza erdara (gaztelania, frantsesa nahiz beste hizkuntza bat) duten haurrak euskaraz ere txikitatik jabetzen dira.

2.1.1 Erronka

Ahozko komunikazioa lantzea ikastetxeetan, euskalkitik estandarera doan bidean. Euskalkia eremu ez formaletarako, estandarra eremu formaletarako. Baita alokutiboa bizirik dagoenetan, erregistro honetan ere.

2.2. Helduen euskalduntzea

Arnasguneetan euskaldunen kopurua oso altua izanagatik ere, bada jendea bertan urte luzez bizi arren euskaraz ikasi ez duena. Bestalde, etorri berri asko hizkuntza hegemonikoetako hiztunak dira, eta gainerakoek, gehienetan, erdaraz ikasten dute euskaraz baino lehenago. Kasu batean zein bestean, garrantzitsua da hiztun hauei euskalduntze bidea erraztea, profitatuz arnasguneetan inon baino aukera hobeak dituztela bai euskara ikasteko baina baita, batik bat, erabilerarako jauzia emateko.

2.2.1. Erronka

Euskara ikasteko aukerak erraztea arnasguneetan bizi diren erdaldunei.



2.2.2. Erronka

Ahozko komunikazioa lantzea euskaltegietan, euskalkitik estandarera doan bidean. Euskalkia eremu ez formaletarako, estandarra eremu formaletarako. Baita alokutiboa bizirik dagoenetan, erregistro honetan ere. Lehenarekin ingurune hurbilean azkarrago sustraitzeko, eta bigarrenarekin eremu soziofuntzional gehiagotan loratzeko.

2.2.3. Erronka

Etorri berriei zuzendutako harrera-plan integralak aurreikusi eta planifikatzea, euskararen ikaste prozesua ardatz hartuta.

**2.3. Arlo profesionala**

Herrian bertan edo herritik gertu lana behar du jendeak, bertan bizitzera geldituko badira. Arnasguneetan lan aukerak ugaritzea garrantzitsua da, hortaz ikuspegi horretatik. Kontuan hartu behar da, halaber, jarduera ekonomiko bakoitzak zein ondorio izango dituen tokiko hizkuntza-egoeran. Arreta berezia eskaini beharko zaie, jakina, bertako errealitate soziolinguistikoa eragin kaltegarrikerik izan gabe bertakoei lan-aukerak zabaltzen dizkieten jardueri.

Gaur egun, oro har, lanera kanpora joaten dira arnasguneetako herritarrak, arnasgunean bertan beren arlo profesionalean aritzeko aukerarik ez dutelako. Azken urteetan (pandemiaren eraginez, batik bat) telelana egiteko aukera zabaldu da eta aukera honek herritarrak arnasguneetan bertan geratzea errazten du.

Bestalde, badira baserriko ohiko jardueretan diharduten herritarrak ere, etxeko aurreko belaunaldien lanbideari segida emanez edo eta kontzienteki hautu hori egin duten baserriar berriak. Alabaina, jarduera horiek zuten pisu erlatiboa jaitسي egin da azken hamarkadotan.

Mugikortasunaren eraginez, geroz eta ohikoagoa da langileak kanpotik arnasguneetara etortzea eta kasu askotan ez dira euskaldunak izaten. Honen arrazoi nagusiak dira, alde batetik, arnasgune askotan zenbait lanbidek ez dutela jarraipenik izan; bestetik, zenbait arnasgunetan zerbitzuak ugaritu dira eta langile kualifikatuak etortzen dira kanpotik.

Gaur egun landa-eremuak eta kostaldeak badaukate lotura estua hirugarren sektorearekin. Azken urteetan indar handia hartu du turismoak eta bertako

gastronomiak ere balio erantsi bat eskaintzen du tokiko eta garaian garaiko produktuak baliatzen dituenean. Horri esker, gero eta jende gehiago joaten da bisitan bai landa-eremuko, bai kostaldeko arnaseguneetara. Maiz, ordea, bertako hizkuntza alde batera utzi, eta bisitariari erdaretan egiten zaie harrera.

2.3.1. Erronka

Arnaseguneetako herritarrak herrian bertan lan egin eta bizitzeko aukerak erraztea (zuntz optikoa, jarduera ekonomikoa sortu edo garatzea...).

2.3.2. Erronka

Lehen sektoreko jarduera ekonomikoa duintzeko bideak aztertzea landa-eremuko herritarrek euren gunetan lanean jarraitzeko aukera izan dezaten. Era berean, landa-eremuan egiten den lana balioan jartzea.

2.3.3. Erronka

Turismoan eta gastronomiaren arloan euskarak lekua irabaztea. Euskara, jarduera ekonomikoaren balio marka gisa ulertu eta eskaintzea. Izan ere, bisitari asko berariaz etortzen da udalerrira euskaldunetara euskara ikusi eta entzutea. Euskara balio erantsia da. Horregatik, ezinbestekoa da arnaseguneetako jendea ahaldundu eta gogoeta eragitea haien hizkuntza-ohiturek euren inguruan duten eraginaren gainean.

2.4. Zaintza esparrua (bereziki adinduen edo ezinduen zaintza), baserri nahiz baso-lanak eta zerbitzugintza

Zaintzaren esparruan, baserri nahiz baso-lanetan eta hainbat zerbitzutan (taberna, denda eta halakoetan) euskararen erabilera nabarmen egin du behera. Jarduera hauetako lan-baldintzen ondorioz, besteak beste, kanpotik etorritakoak dira lan horietan jarduten dutenak, oro har. Gehienak etorri berriak izaten dira, beste kultura eta hizkuntza batzuen jabe dira, eta beraz, ez dakite euskaraz eta ez dute bertako kultura ezagutzen. Alde batetik, ekonomia jardueraren jabeak euskaldunak izanagatik ere, lan hizkuntza erdara bihurtzen da langileen hizkuntza ez delako euskara; eta bestetik, adinduen zaintza zerbitzua euskaraz emateko zailtasunak daudenez, arnaseguneetako adinduak eta euren familiak erdarara murgiltzen dira.

2.4.1. Erronka

Langile etorri berriei euskara ikasteko aukerak eta baliabideak ematea eta erraztea. Jardueraren jabeak nahiz familiak ahalduntzeko bidea egin, bertako hizkuntzan lan egiteak eta zerbitzua emateak duen garrantzia balioan jartzeko.

2.4.2. Erronka

Eragin soziolinguistiko handiena izan dezaketen lanpostuetara langile euskaldunak erakartzeko pizgarriak eskaintzea.

2.4.3. Erronka

Etorri berrientzat planifikatutako harrera-planetan ikuspegi inklusiboa txeratztea: etorri berrien eta bertakoen arteko harreman eta elkarbizitza sustatzen duten praktikak bultzatzea, euskaratik eta kultur artekotasunetik abiatuz.

**2.5. Online vs. offline bizitza**

Jakina da harremanak izateko modua asko aldatzen ari dela azken urteotan eta harreman-sare horietako asko birtualak direla. Hau da, online bizitza pisu handia hartzen ari da, baita arnasmuneetan ere. Euskaraz jarduten duten kideen arteko guneak badira eremu digitalean: euskarazko hedabideak, gertuko arteko harreman-sareak, euskarazko bideo-jokalarien sareak... Halere, bizitza birtual berri honetan hizkuntza-aniztasuna nagusitzen da, eta bereziki, hizkuntza hegemonikoetan egiten dira harremanak euskara eta hizkuntza gutxiak albo batera utzita.

2.5.1 Erronka

Arnasmuneetako herritarrek dituzten komunikazio harreman digitalak aztertu eta etorkizuneko erronkak zein diren identifikatzea.

2.5.2 Erronka

Eremu digitalean euskaraz jarduten duten kideen arteko guneak sustatzea eta babestea, herritarrei ezagutaraziz eta etorkizuneko eredu bihurtuz.

2.6. Ingurune digitala – Kultur kontsumoa – hedabide digitalen kontsumoa

Erdarek dituzten baldintza sozio-kultural eta ekonomikoen ondorioz, euskarak leku txikiagoa du ingurune digitalean eta kultur kontsumoan. Euskarazko produktuen kontsumoa apalagoa da, alde batetik, gainerako erdaren aurrean euskarazko sorkuntza eta eskaintza txikia delako, eta bestetik, beste hizkuntzetan sortu eta eskaintzen dena euskaraz kontsumitzeko aukerarik ez dagoelako. Interneteko ikus-entzunezko plataforma nagusi askok (Netflix, etab.), adibidez, ez dute ia euskarazko eskaintzarik eta, beraz, ezin da euskaraz kontsumitu. Egoera honek gainerako eremuetako euskaldunei bezala eragiten die arnasmuneetako ere.

2.6.1. Erronka

Euskarazko edukien sorkuntza handitzea, dibertsifikatzea (hartzaille motaren arabera) eta erdaretan dauden edukiak euskaraz kontsumitzeko aukerak handitzea.

2.6.2. Erronka

Arnasmuneetako herritarrak euskaraz sortzearen eta kontsumitzearen garrantziaz kontzientziaztea eta erabilera indartzeko proiektuak sustatzea.



arNasa GARA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

